

ESKUARA

Eskuaraz mintzo ziren gure arbasoak,
Jendeki, ahaidego, gizalde osoak.
Eskuaraz mintza gaiten, heien ondokoak,
Haurrekin bereziki, zuek burhasoak.

Ait'amen galtzarrean, altzo-besoetan,
Haurretik hasi-eta adin guzietan,
Zer da ederragorik Eskual-herrietan?
Mintzai paregabe bat, bat zahar-gaztetan.

Munduko mintzoetan nun da hoin garbirik,
Hoin gai on eta nasai, hoin biphil, bizirik?
Eskuarak du elhea labur eta erne,
Erran nahi den hura, laster duzu barne.

Hitz huts alferrik gabe, zalhu-ta lanoki,
Gauza gorak, bamenak, aiphatuz errechki,
Eskuarak bere baithan daduzka ethorki,
Ithurburu, zimendu, erroak, deblauki.

Bere jitez, indarrez, dela asentatzen,
Laguntz arrotzik gabe, dela bururatzen,
Nola etchekeo-jauna, burua gorarik,
Badagoke Eskuara, ez du nihun zorrik.

Eskuarak eremuak baiti tu zabalak,
Aberats, gizen, nasai,... zer hunen ahalak!
Gure gogoetari dohazkon asmuak
Aira ditzazke nola arraina amuak.

Gure bozkarioak ala bihotzminak,
Eskuaraz ditzazkegu ontsa ager denak.
Sola aipha ditzazke, chuchenez, legunki?
Eskuara gozoenez, aberatsez, eiki.

Bolsa bazira ere Eskuarazko hitzez,
 Eskuarak badituzke hitz berriak antzez.
 Mindegian haziak, landare bezala,
 Hemen ere hitz-gayak dire hala hala.

Hitz-gayak elgarrekin bil bitez, loth, cherta,
 Ez nola nahi bainan kaskoz moldatuta.
 Eskuara duzularik gozoki chertatzen.
 Asmurik zorrotzenak dirare argitzen.

Hala nola ehaile trebearen eskuz,
 Irazki eta bilba elgar trebeskatuz,
 Elgarrekin baitire josten eta lotzen,
 Tinki-tinkia gero oihal atheratzen.

Son dire Eskuararen ethorki, adarrak,
 Nork ager hunen erre zail eta zaharrak?
 Gure lehen ait'amak, Adam eta Eba,
 Eskuaraz mintzo ziren, *omen* hori bada.

Babeleko dorrean guzien mintzara
 Nahas makhurtu arte *omen* zen Eskuara.
 Erran zuharrak dio : gauz'onak iraunkor,
 Zerbeit gisai Eskuara dago hazkar, gothor.

Eskual-herrirat *onzen* jautsi zen deprua
 Eskuara ikhasteko, kechurik burua.
 Zazpi urthe egonik joan behar izan zen,
 Eu eta *ba* doidoia ziolarik zuzen.

Eskuarak iduri do ibai aberatsa,
 Ur garbienak bethi orotan dabilta.
 Irakaspen on, argi, ditu barraiatzen,
 Eskuaran libru tzarrrik ez ierikatzen.

Mahastian sartzetik ohoiu aztaparrak
 Maiz biribil daduzka hesiko lapharrak.
 Hala Eskuarak tieso derauzkigu zaintzen
 Ohitura zaharrak, bai sinheste zuzen.

Zamaldunari ihes mando muthiria
 Dabila uztar, salto, hezkaitz iduria.
 Eskuarari loth zaite, nola zamalduna,
 Hezi-eta dukezu azpiko leguna.

Besarkatuz ingura, iraungi, edoski,
 Huntzak zuhaitza baitu ihartzen emeki,
 Orobat churga churga, haur ttipien gisa,
 Zuk ama Eskuarari duzula irrisa.

Eskuara ikhas, mintza, eskuara irakur,
 Lagunekin, etchean, elhe, solas, agur.
 Erdara behar bada, negurriz erdaraz,
 Erdaraz aphaindura, mamia Eskuaraz.

Choriek nahi dute kayolatik ilkhi,
 Liliek ere noizbait jastatu iguzki.
 Erdaralat baledi zure ichuria,
 Erdaraz bakhan mintza, Eskuaraz loria.

Indietarat dohan Eskualdun gazteak
 Sor-lekhuko alderat maiz bihotz-begiak.
 Ur handiaz bertzalde helduz geroztikan,
 Bere ametsak oro ditu Amerikan.

Erdaldunen erdira orobat, airatuz
 Laude bada Eskualdun, Eskuaraz mintzatuz;
 Joanago, sartzenago arrotz mintzaietan,
 Akhabo laster laite zutaz piaietan.

Nola etche choria goibel baita jartzen
 Laguna galdurikan, osoki trištutzen,
 Nigarren minez zaio begia ilhutzen,
 Orobat Eskualduna delarik kaskointzen.

Iphar aldean dirdir dago artizarra,
 Ziburun mariñelen kart'eta otana.
 Gure zero gainean dirdir da Eskuara,
 Eskual izarrarekin goazen Jainkoa gana.

J.-B. DARANATZ.